

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

3/2021 Foru Agindua, urtarrilaren 8koa, onesten dituen Arabako Foru Aldundiaren bulegoak irekitzeko ordutegia eta bulegoak ixteko egunak 2021erako

Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 28ko 66/2012 Erabakiak ezartzen du Arabako Foru Aldundiaren bulegoen eta erregistro presentzialen ordutegia –erregistro gaietako laguntza bulegoak, bat etorritik Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, xedatutakoarekin–.

Erabaki horrek xedatzen du funtzio publikoaren arloan eskumena duen diputatuaren foru aginduen bidez ezarriko direla urtero foru aldundi honetan ordutegi bereziko egun izango direnak, eta foru agindu hori ALHAOn argitaratuko dela.

Bestalde, Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorreko funtzionarioen lan baldintzak onesten dituen uztailaren 26ko 36/2017 Foru Dekretuak 10. artikuluan jasotzen duenez, Arabako Foru Aldundiko langileentzat, “Urteko lanaldiaren banaketa eta, horrenbestez, kasuan kasuko egutegiak langileen ordezkariekin adostuko dira; zerbitzu bakoitzaren beharizan bereziak bermatuta geratu beharko dira. Egutegi horietan, jaiegun gisa aurreikusiko dira Euskal Autonomia Erkidegorako egutegi ofizialean jaiegun gisa ezarritako 14 egunak, lurralde historiko eta udal-erri bakoitzerako ezarritakoak, eta, horiez gain, ekainaren 24a, abenduaren 24a eta 31”; arauz jasotako horrek ere isla izan behar du Foru Aldundiaren bulego eta erregistroen ordutegia arautzean.

Horiek horrela, kontuan harturik Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten dituen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretua, bai eta Arabako Foru Aldundiaren sailak zehazten dituen Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretua ere, eta Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 28ko 66/2012 Erabakiaren lehenbiziko paragrafoak esleitzen dizkidan ahalmenak baliatuz, hau,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Egun eta ordutegi hauek ezartzea Arabako Foru Aldundiaren bulegoak eta erregistro gaietako laguntza bulegoak irekitzeko, 2021. urtean:

a) Ordutegi orokorra, astelehenetik ostiralera (jaiegun, ordutegi bereziko eta itxitako egunetan izan ezik): 8:15 – 14:30.

b) Mugikortasun eta Garraio Zuzendaritzaren bulegoen ordutegia (jaiegun, ordutegi bereziko eta itxitako egunetan izan ezik): astelehenetik ostegunera, 09:30 – 13:30; eta ostiraletan, 8:15 – 14:30.

c) Ordutegi berezia, bai bulego orokorretarako bai Mugikortasun eta Garraio Zuzendaritzaren bulegoetarako: 09:15 – 12:30.

2021. urtean hauek izango dira ordutegi bereziko egunak: urtarrilaren 5a; abuztuaren 4a, 6a, 9a eta 10a eta irailaren 13a. Ordutegi bereziko egunak Guardiako Ogasun eta Erregistroko bulegoan ekainaren 23a, 25a eta 28a izango dira; eta Laudioko Ogasun eta Erregistroko bulegoan martxoaren 26a eta abuztuaren 24, 25, 26 eta 27a.

Bigarrenena. Bat etorri 36/2017 Foru Dekretuarekin, bulegoak itxita egongo diren egun gisa ezartzea 2021erako, Lan eta Justizia Sailaren Arabako ordezkariaren 2020ko urriaren 6ko Ebazpenaren bidez jaiegun deklaraturakoez gain, ekainaren 24a eta abenduaren 24a eta 31.

Hirugarrena. Eskaintzen duten zerbitzua berezia delako, aurreko apartatueta ezarritako jendearentzako ordutegitik kanpo geratzen dira honako hauek: Kultura Etxea, museoak, hirugarren adinekoen elkartegiak, basozainak eta beste zerbitzu berezi batzuk; horientzat, eskaintzen dituzten zerbitzuen arabarako ordutegiak finkatuko dira.

Laugarrena. Foru agindu honetan ezarritako egunak eta ordutegiak honela kontsulta daitezke:

- elektronikoki, Arabako Foru Aldundiaren web atariaren bidez,
- aurrez aurre, Arabako Foru Aldundiaren edozein bulegotan,
- telefonoz, 945 18 18 18 zenbakira deituz.

Bosgarrena. Salbuespenez, foru agindu honetan araututakoez bestelako ordutegiak ezarri ahalko dira jendea atenditzeko, leihatilan tipifikatutako administrazio izapideetarako, herritarrak hobeto atenditu ahal izateko kanpaina jakin batzuetan. Kasu horietan, saileko diputatu titularren berriazko baimena beharko da.

Seigarrena. Foru agindu hau ALHAOn argitaratuko da, eta 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urtarrilaren 8a

Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Zerbitzu Orokorraren zuzendaria
JAVIER MARDONES GÓMEZ-MARAÑÓN